

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

EBAZPENA, 2019ko irailaren 27koa, HABEren zuzendari nagusiarena, 2019/2 jardunbidea emateko dena, 2019ko irailaren 13ko EBAZPENA, HABEren zuzendari nagusiaren, 2019/1 jardunbidearen akats zuzenketa emateko dena.

HABEren zuzendari nagusiak 2019ko irailaren 13ko EBAZPENA onartu zuen, euskaltegiek eta euskararen autoikaskuntzarako zentroek 2019-2020 ikasturtean zehar ikasleen matrikulaziorako eta ebaluazio zein egiaztatze gintzarako betebeharreko jarraibideak zehaztuz.

Ebazpen horrek akats zuzenketa bat behar izan du, komunikagaitasun-mailak egiaztatzeko trebetasunak jasotzeko eta gordetzeko modua aldatu delako tresna informatiboak egokitzearen ondorioz.

EBAZTEN DUT

2019/2 Jardunbidea onartzea eta jakinaraztea, eranskinaren 3.2.2.k) puntua, euskarazko komunikagaitasun-mailak HABEren deialdietan egiaztatzeko trebetasunak nola jasoko diren zehaztuz.

k) Euskarazko komunikagaitasun-mailak HABEren deialdietan egiaztatzeko:

1. Honela jasoko dira ikasteredu guztietan lau trebetasunak (entzumena, irakurmena, idazmena eta mintzamina) neurtzeko erabilitako eta ikasleek egindako ebaluazio-jarduerak:

- a) Maila egiaztatzeko ebaluazio-jarduerak jasotzeko, 4 artxibo igoko dira ikasleko:
 - a.1) Ebaluazio-jardueren enuntziatuak PDF batean jasoko dira, hurrenkera honetan: a) idazmen-jarduera, b) mintzamen-jarduera, c) irakurmen-jarduera eta d) entzumen-jarduera. PDF artxibo hori ikastaldeko karpetera igoko da. Nolanahi ere, kasuren batean beste ebaluazio-jardueraren bat erabili bada, dagokion ikaslearen karpetan gordeko da enuntziatu berezi hori.
 - a.2) Ikaslearen ekoizpena beste PDF batean jasoko da, hurrenkera honetan: idazmen-jarduerari dagokiona, irakurmen-probari dagokiona eta entzumen-probari dagokiona. Ikasle bakoitzari berea igoko zaio.
 - a.3) Entzumen-jarduera neurtzeko erabilitako entzungaia ikastaldeko karpetera igoko da. Kasuren batean beste entzungairen bat erabili bada, dagokion ikaslearen karpetan gordeko da entzungai berezi hori.
 - a.4) Mintzamen-jarduerari dagokion ikaslearen ekoizpena jasoko da. Ikasle bakoitzari berea igoko zaio.
 - b) Lau artxibo horiek jasotzeko, hiru aukeren artean egingo du hautu euskaltegiak:
 - b.1) HABEren Q87 aplikaziora igo, HABEren jarraibideen baitan.
 - b.2) Euskaltegiko sistema informatikoan gorde.
 - b.3) Euskaltegian bertan gorde, papera zein audio edo bideoa euskarri.
- Ebaluazio-jarduera horiek 5 urteko epean gorde beharko dira.

Donostian, 2019ko irailaren 27an



Jokin Azkue Arrastoa
HABEren zuzendari nagusia

HABE
Helduen
Alfabetatze eta
Berreuskalduntzerako
Erakundea